Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko maiatzaren 20a, ostirala — 95 — Viernes, a 20 de mayo de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

### Langileria

*Galardi Haur Eskolako Hezleen lan postua betetzeko aldi baterako hezle lan-poltsa bat sortzeko oinarriak onartu eta deialdia egitea.*

Andoaingo Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatetzak eskuordeturik, 2022ko maiatzaren 17an, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

*Lehena:* Galardi Haur Eskolako Hezleen lan postua betetzeko aldi baterako hezle lan-poltsa bat sortzeko oinarriak onartzea eta deialdia egitea.

*Bigarrena:* Deialdi hau eta bere oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo daiteke, Donostian dagoen Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, iragarki hau argitara ematen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hala ere, nahi izanez gero eta administrazioa-rekiko auzi-helegitearen aurretik, partikularrek berraztertze-ko helegitea aurkeztu ahal izango dute, Udal Alkatearen aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Helegitea aurkezten den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean jakinarazpenik jaso ez bada, gaitzetsi egin dela ulertuko da.

Berraztertzeko helegitearen berariazko ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu ahal izango da Donostiako Epaitegian, jakinarazpena jaso edo argitaratzen den egunaren biharamunetik 2 hilabeteko epean, eta ebazpena isilbidezkoa bada, berriz, berraztertzeko helegitea aurkeztu den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta 7 hilabeteko epean.

Hautazko berraztertzeko helegitea aurkeztuz gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-helegiterik aurkeztu, berraztertzekoa berariaz edo isilbidez ebatzi bitartean.

Andoain, 2022ko maiatzaren 17a.—Maider Lainez Lazcoz, alkatea. (3281)

*Galardi Haur Eskolako hezlea lan poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak.*

*Lehena. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea da hautagaiak hautatzea, Lehiaketa ireki bidez, Galardi Haur Eskolarako hezle lan-poltsa sortzea. Lan poltsa hori erabiliko da egiten diren behin-behineko funtzionari izendapenetarako, hutsik dauden lanpostuak bete behar direnean, ordezkapenak egiterakoan edo aldi baterako egitarauak burutzeko beharra sortzen denean.

*Bigarrena. Lanpostuen ezaugarriak.*

— Lanpostua Adminsitrazio berezia eskalan, Zerbitzu bereziak azpieskalan, Eginkizun bereziak klasean dago.

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

### Personal

*Aprobación de las bases de selección y convocatoria del Creación de una bolsa de trabajo temporal de Educadores/as.*

La Junta de Gobierno Local, por delegación de la Alcaldía, en sesión celebrada el día 17 de mayo de 2022, adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

*Primero:* Aprobar las bases de selección, y efectuar la convocatoria del Creación de una bolsa de trabajo temporal de Educadores/as.

*Segundo:* Publicar la presente convocatoria y sus bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación de este anuncio.

No obstante, si así lo desean y previo al recurso contencioso-administrativo, los particulares pueden presentar, ante la Alcaldía de este Ayuntamiento, Recurso de Reposición, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Se entenderá desestimado al mes de haberlo presentado sin recibir notificación alguna.

Contra la resolución expresa o tácita del recurso de reposición podrá presentar Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de San Sebastián, en el plazo de 2 meses a contar desde el día siguiente de la notificación en caso de resolución expresa. Y contra la desestimación presunta por silencio administrativo en el plazo de 7 meses a contar desde el día siguiente a su presentación.

Si opta por presentar el recurso de reposición, no podrá presentar recurso contencioso-administrativo hasta que aquel sea resuelto expresamente o se haya producido su desestimación por silencio.

Andoain, a 17 de mayo de 2022.—La alcaldesa, Maider Lainez Lazcoz. (3281)

*Bases de la convocatoria para la creación de bolsa de trabajo temporal de Educadores/as de la Escuela Infantil Galardi.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la presente convocatoria la selección de aspirantes, mediante concurso libre, para la creación de una bolsa de trabajo temporal de Educadores/as de la Escuela Infantil Galardi, que será utilizada para los nombramientos de funcionario/a Interino/a, cuando sea precisa la provisión de puestos vacantes, la realización de sustituciones o la ejecución de programas temporales.

*Segunda. Características de las plazas.*

— Escala de Administración especial, Subescala Servicios especiales, Clase Cometidos especiales.

EK\CV GAO-I-2022-03281

— Sailkapen taldea: A2/C1.

— Sarbide Titulazioak: Haur Hezkuntzako maisu aditua; O.H.O.-ko irakaslea, haurreskolan aditua; Haur Eskoletan teknikari aditua (TEJI) edota Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria.

— Hizkuntza eskakizuna: 3. Hizkuntza eskakizuna dagokio, derrigorrezko izaerarekin.

— Ordainsari maila: Udalhitzeko 1 eranskinean jasotzen den 14 maila.

Laneguna, urtero Udalak erabaki dezana izango da, eta, nolanahi ere, lanpostuaren izaera eta behar bereziei egokitutakoa izango da.

Lehiaketa-oposizio honen ondorioz sortzen den lan poltsa, indarrean izango da deialdi berririk egiten den bitartean eta 2015eko lan poltsaren osagarria izango da.

Sailkapenaren ordena aldatu ahal izango da, udalak lan-poltsak kudeatzeko araudian ezarritako kasuetan eta moduan. Araudi hori 2021eko abuztuaren 3an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

*Hirugarrena. Lanpostuko eginizunak.*

Galardi Haur Eskolako arduradunaren menpe egonik bai ierarkian bai eginkizunetan, lanpostuaren berezko eginkizunak izango dira eta, beraz, teknikariaren ardurapekoak, ondokoak:

— Haurraren beharrizan fisiko, psikologiko eta emozionalei erantzun.

— Gela bakoitzeko programa urtero egokitu eta bete, 0tik 3 urterako umeen heziketa proiektuak oinarrituz eta zentroko kurrikulua oinarritzat hartuz.

— Ikasturteka eta gelaka memoriak egin.

— Ama-aitek haur eskolarekiko duten konfiantzan lan egin eta bultzatu.

— Haur eskolan, giro lasai eta egokia bermatu.

— Haurren aldetik ekintza eta esperimentazioa errazteko, giro egokia sortu.

— Haurren momentu bakoitzeko beharrizan eta nahiak bete, erantzun egokiak emanez.

— Egitasmoa eta ekintza globalak planifikatu eta burutu.

— Haurrak era dinamiko batean, beraien garapen eta heziketan lagundu.

— Ikusketaren bidez haur bakoitzaren bilakaeraren jarraipena egin eta garapenean izan ditzaketen zailtasunetan laguntza eman.

— Eskolari dagozkien bilerak antolatu: klaustroa, gelako aita-amekin, globalki zein banan-banan, juntak...

— Bere lanpostuaren kategoriarekin bat datorren eta esleitzen zaion beste edozein betebehar, bere nagusien gainbegiratupean.

*Laugarrena. Hautagaien betebeharrak.*

Oinarri hauek arautzen duten hautatze jardunbidean onartua izateko betebeharrak honakoak dira:

— Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea ezartzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude; herritartasuna duenaren

— Grupo de clasificación: A2/C1.

— Titulaciones de acceso: Maestro/a especialista en Educación Infantil, Profesor/a de E.G.B. especialista en Preescolar Técnico Especialista en Jardín de Infancia (TEJI) o Técnico Superior en Educación Infantil.

— Perfil lingüístico: PL 3 con carácter preceptivo.

— Nivel retributivo: 14 del anexo 1 de Udalhitz.

La jornada de trabajo será la que establezca anualmente el Ayuntamiento, atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto.

La Bolsa de trabajo resultante de este concurso, estará en vigor en tanto se realice una nueva convocatoria y será complementaria a la anterior bolsa creada en el 2015.

El orden de clasificación podrá ser alterado en los casos y forma establecidos enla normativa de gestión de bolsas aprobada por el ayuntamiento y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con fecha 3 de agosto de 2021.

*Tercera. Funciones del puesto.*

Dependiendo jerárquica y funcionalmente de la Responsable de la Escuela Infantil Galardi, son funciones propias de su puesto de trabajo, y de las que es responsable, las siguientes:

— Responder a las necesidades físicas, psicológicas y emocionales del niño.

— Adecuar y cumplir el programa de cada aula anualmente, basándose en el proyecto de educación de niños de 0 a 3 años y utilizando como base el currículum del centro.

— Realizar la memoria por curso y aula.

— Impulsar y trabajar la confianza de los padres y madres hacia la escuela infantil.

— Asegurar un ambiente tranquilo y adecuado en la escuela infantil.

— Crear el ambiente adecuado para facilitar la actividad y la experimentación por parte de los niños y niñas.

— Atender a las necesidades o deseos de los niños y niñas en cada momento, proporcionando la respuesta adecuada.

— Planificar y llevar a cabo proyectos y actividades globales.

— Ayudar, de una manera dinámica, a los niños y niñas en su desarrollo y aprendizaje.

— Realizar el seguimiento de la evolución de cada niño y niña mediante la observación, respetando el ritmo de los niños y niñas y ayudarles en las dificultades que le puedan surgir en su desarrollo.

— Llevar a cabo las reuniones correspondientes: claustro, con los padres y madres de su aula, tanto global como individualmente, Juntas...

— Cualesquiera otras funciones que le sean encomendadas de acuerdo con la categoría de su puesto de trabajo.

*Cuarta. Requisitos de los/as aspirantes.*

Son requisitos para ser admitido/a en los procesos selectivos regulados por estas Bases:

— Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores/as.

También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separada/o de derecho, así como sus descendientes y los

EK\CV GAO-I-2022-03281

ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, betiere direlako ezkontideak zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, eta baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere baina gurasoen kontura bizi direnak.

— 16 urte betea izatea eta jubilazio adinera iritsi ez izana.

— Haur Hezkuntzako maisu aditua; O.H.O.ko irakaslea, haurreskolan aditua; Haur Eskoletan teknikari aditua (TEJI) edota Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria edo baliokideren baten jabe izatea. Atzerriko titulazioei dagokienez, horiek homologatu izana egiaztatzen duen agiriaren jabe izan beharko du hautagaiak.

— 3. Hizkuntza eskakizuna edo maila berekoa bete izana egiaztatzea.

— Lanpostuari dagozkion eginkizunak ohikotasunez betetzea galarazten dion gaixotasunik edo muga fisikorik ez edukitzea, ezinduen gaineko gizarteko eragin-trukeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea ezartzearen kalterik gabe. Gaitasun fisiko edo psikikoa egiaztatuko da behin hautaketa bidea amaitu ondoren, medikuaren ziurtagiri edo miaketa bidez, bat etorriz 14. oinarrian xedatuarekin, eta lanpostua jabetzan hartu ahal izatea baldintza hori betetzearen menpe geldituko da.

— Eginkizun publikoak egiteko ezgaituta ez egotea eta edozein Herri Administrazioren zerbitzutik zigor espediente bidez baztertutakoa ez izatea. Atzerritarra izanez gero, ez izatea inolako zigorrik eragozten dionik jatorriko bere Estatuan funtzio publikoan sartzea.

Hala ere, zigor-bideko eta administrazioko arauen arabera, birgaitua izatearen onura aplikatu ahal izango zaio; beti ere, hautagaiak birgaitze hori bidezko agiri ofizialen bidez egiaztatzen baldin badu.

— Administrazio Publikoan jarduten diren Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoaren arabera, legezko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren batean ez egotea, beti ere, aipatu lege-arauak jada bateraezina den kargu publiko bat edo jarduera pribaturen bat betetzen dutenei aukera egiteko eskaintzen dien eskubidea egikaritzearen kalterik gabe.

Laugarren oinarrian zerrendaturiko betebehar guztiak, eskaerak aurkezteko epearen azken egunean eskuratuta edo beterik eduki behar dira eta indarrean eutsi behar zaie Udal honetan aldi bateko funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen den uneraino. Zerrendaturiko betebehar horietakoren bat galduz gero, automatikoki zerrendatik ezabatua izango da, horretarako hori aginduz ebazpenik hartu behar izan gabe.

*Bosgarrena. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.*

Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan eta Dekretu horren 3. artikulua aldatzen duen uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuan ezarritakoari jarraiki, ariketa hau ez dute egingo –eta, beraz, gai kalifikazioa hartuko dute– ziurtagiri edo titulu bidez egiaztatzen dutenek badutela Hizkuntzen Europako Erreferentxi Marko Bateratuko mailako edo maila jasoagoko euskara gaitasuna.

Ez dute ariketarik egin beharko ere apirilaren 3ko 47/2012 dekretuan jasotako ikasketak egin izana egiaztatzen duten hautagaiek, aipatu dekretua izanik euskaraz ikasketa ofizialak burutu izana aitortzeari eta euskarazko titulu eta hizkuntza ziurtagiriez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa.

Prozeduraren laburpena dela eta, ez da hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probarik egingo.

de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados/as de derecho, sean éstos/as descendientes menores de 21 años o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas.

— Tener cumplidos 16 años de edad y no haber alcanzado la edad de jubilación.

— Estar en posesión del título de Maestro/a especialista en Educación Infantil, Profesor/a de E.G.B. especialista en Preescolar Técnico Especialista en Jardín de Infancia (TEJI) o Técnico Superior en Educación Infantil. En el caso de las titulaciones extranjeras deberá estarse en posesión de la credencial que acredite su homologación.

— Acreditar el cumplimiento del perfil lingüístico 3 o equivalente.

— No padecer enfermedad o limitación física o psiquica que impida el normal desempeño de las funciones correspondientes, sin perjuicio de la aplicación de la Ley 13/1982, de 7 de abril, de interación social de minusválidos La capacidad física o psíquica se acreditará, una vez superado el proceso selectivo, mediante certificado y/o reconocimiento médico de acuerdo a lo dispuesto en la Base 14, quedando supeditada la toma de posesión al cumplimiento de este requisito.

— No encontrarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas, ni haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas. En caso de ser extranjero/a, no estar sometido/a a sanción disciplinaria o condena penal que impida en su Estado el acceso a la Función pública.

Será aplicable, no obstante, el beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas, siempre que aquélla se acredite mediante el correspondiente documento oficial por parte del aspirante.

— No estar incurso/a en ninguna causa legal de incapacidad e incompatibilidad, de acuerdo con lo previsto en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre de Incompatibilidad del Personal al servicio de las Administraciones Públicas, sin perjuicio para los/as que ocupan ya un cargo público o una actividad privada incompatible de ejercitar el derecho de opción a que se refiere la citada norma legal.

Todos los requisitos enumerados en la base 4., deberán poseerse el día de finalización del plazo de presentación de instancias y mantenerlos hasta el momento de la toma de posesión como funcionario/a interino/a de este Ayuntamiento. La perdida de cualquiera de los requisitos enumerados supondrá la automática eliminación de la lista sin necesidad de resolución en dicho sentido.

*Quinta. Acreditación del perfil lingüístico.*

De conformidad con el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de referencia para las Lenguas, cuyo art. 3 fue modificado por el Decreto 187/2017, de 4 de julio, quedarán exentosas de realizar estas pruebas –y se les asignará la calificación de apto/a– a las personas aspirantes que acrediten, mediante los títulos o certificados correspondientes, estar en posesión de la competencia lingüística en euskera equivalente al nivel o superior del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

También quedarán exentas las personas aspirantes que acrediten estudios recogidos en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

Por lo sumario del procedimiento no se realizarán las pruebas acreditativas del perfil lingüístico.

EK\CV GAO-I-2022-03281

*Seigarrena. Eskaerak.*

1. Onartuak izateko eta, hala badagokio, dagozkion hautaketa-ariketetan parte hartzeko, hautagaiek eskabideko atal guztiak bete beharko dituzte. Eskatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituztela adierazi beharko dute, betiere eskaerak aurkezteko epeari gagozkiolarik, hots, epearen amaieran betetzen dituztela. Eskaera-orria berean, eskatzaileek baimena emango diote espresuki Andoaingo Udalari, sektore publikoko edozein entitatetatik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan deialdi honen oinarrietan jasotzen diren baldintza betetzen dituztela.

Kontsulta egiteko baimenik eman ezean, udalak eskatutako agiriak aurkeztu beharko ditu interesdunak.

2. Aurkezteko epea, tokia eta era: Eskabideak oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera kontatuta 10 egun naturaleko epearen barruan aurkeztu beharko dira.

Eskabideak Andoaingo Udaletxeko Ataria - Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoan aurkeztu ahal izango dira, herri honetako Goikoplaza z/g helbidean. Eskabideak urriaren 1eko Administrazio Publikoko Jardunbide Orokorrari buruzko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan zehazten diren toki horietako batean ere aurkeztu ahal izango dira. Posta-bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak gutun-azal irekian aurkeztuko dira, Postako langile-funtzionarioak data eta zigila ditzan, horiek ziurtatu aurretik.

Udal honek data arte erregistroei buruz izenpetu dituen hitzarmenekin bat etorriz, eskabideak Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistro Nagusian eta Eusko Jaurlaritzakoan ere aurkeztu ahal izango dira.

Halaber, Andoaingo Udalak www.andoain.eus egoitzan dituen zerbitzu telematikoen bidez ere formalizatu ahal izango dira eskaerak.

*Zazpigarrena. Hautagaiak onartzea. Erreklamazioak.*

Behin eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta gehienez hilabeteko epean, Alkatetzak onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda onartzen duen ebazpena emango du, baztertutakoen kasuan kanpoan uzteko arrazoia azalduz. Ebazpen hori udal webgunean emango da argitara.

Baztertuta geratzen diren hautagaiek beren erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta kasua balitz, hutsegiteak zuzendu, behin behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 3 egun naturalen barruan.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada. Murtzilo edo erreklamaziorik balego, onartu eta baztertu egingo lirateke behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen berrian. Hori ere goian adieraziriko moduan emango da ezagutzera jendaurrean.

*Zortzigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.*

1. Osakera.

Deitutako hautaketa jardunbide honetako Epaimahai aztertzailea ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuko 4. artikuluan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeko 31 eta 32. artikuluetan eta martxoaren 10eko 364/95 ED-an ezarritakoaren arabera osatuko da eta osaera, behin izendapenak Alkatetzak egin ondoren udaleko webgunean argitaratuko dira onartutako eta baztertutako hautagaien zerrendarekin batera.

Epaimahaia nagusiki teknikoa izango da eta mahaikideek deitutako lanpostuetan jarduteko eskatzen den titulazio berdina edo goragokoa izan beharko dute.

Epaimahaiaren osaeran espezialitatearen printzipioa errespetatuko da. Irizpide horren arabera, Epaimahai bakoitzeko kideen erdiak, gutxienez, lanpostuan jarduteko eskatzen den ezagupen-arlo bereko titulazioa izatea zainduko da. Ostera, eta horrek espezialitate hatsarreari kalterik egin gabe, osaketak ore-

*Sexta. Solicitudes.*

1. Para ser admitidos/as y, en su caso, tomar parte en las pruebas selectivas correspondientes, los/as aspirantes deberán formalizar la solicitud en todos sus apartados, debiendo manifestar que reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos, referidos siempre a la fecha de finalización del plazo señalado para su presentación. En la misma solicitud, deberán autorizar expresamente al Ayuntamiento para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar que cumplen con las condiciones exigidas en las bases de esta convocatoria.

En caso de no autorizar la consulta, la persona interesada deberá presentar la documentación requerida por el Ayuntamiento.

2. Plazo, lugar y forma de presentación: Las solicitudes se presentarán dentro del plazo de 10 días naturales contados a partir del siguiente al anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes se podrán presentar en la oficina Ataria - Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Andoain, sito en Goikoplaza s/n de la referida localidad. Las solicitudes podrán también presentarse en cualquiera de los lugares que determina el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas. Las solicitudes que se presenten a través de las Oficinas de Correos deberán ir en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el personal funcionario de Correos, antes de su certificación.

De conformidad con los convenios relativos a Registros suscritos hasta la fecha por este Ayuntamiento, las instancias también podrán presentarse en los Registros Generales de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Gobierno Vasco.

Asimismo, las solicitudes se podrán formalizar a través de los servicios telemáticos del Ayuntamiento de Andoain de la sede www.andoain.eus.

*Séptima. Admisión de aspirantes. Reclamaciones.*

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, y en el plazo máximo de un mes, la Alcaldía dictará resolución aprobando provisionalmente la relación de personas admitidas y excluidas, con expresión, en este último supuesto, del motivo de exclusión. Esta Resolución será publicada en la página web municipal.

Las personas que resulten excluidas podrán formular reclamaciones y subsanar, en su caso, los defectos en que pudieran haber incurrido, dentro de los 3 días naturales siguientes a la publicación de la relación provisional.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva, que se hará pública, asimismo, en la forma indicada.

*Octava. El Tribunal calificador.*

1. Composición.

El Tribunal calificador del proceso selectivo convocado, se constituirá conforme a lo señalado en el artículo 4 del Real Decreto 896/91, de 7 de junio, artículos 31 y 32 de la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca y R.D. 364/95, de 10 de marzo, y su completa composición se publicará en la página web municipal, conjuntamente con la relación de personas admitidas y excluidas, previo su nombramiento por la Alcaldía.

Su composición será predominantemente técnica y los/as vocales deberán poseer titulación igual o superior a las exigidas para el acceso a las plazas convocadas.

La composición del Tribunal respetará el principio de especialidad. Conforme a él, se velará para que al menos la mitad de las/os miembros del Tribunal posea una titulación correspondiente al mismo área de conocimiento que la exigida para el ingreso. No obstante y si ello no afecta al principio de especiali-

EK\CV GAO-I-2022-03281

katua izan beharko du gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen artean, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun legearen, otsailaren 18ko 2005/4 legeko 20.6 artikuluak agindutakoaren arabera. Era berean, epaimahaiko kideak izendatzea unean, izendaturiko lagun guztiak elebidunak izan daitezen ahaleginduko da.

Epaimahaia ordezko kideez ere osatu beharko da, mahaikide titularrei dagozkienak eta haiekin batera izendatu beharko direnak ordezkatu ezin diren epaimahaiko idazkari karguak eta mahaikideenak betetzeko.

Epaimahaiak, aholkulari lanetan arituko diren adituak izendatu ahal izango ditu, beren espezialitatearen arloko gaietan bakarrik jardungo dutenak. Pertsona horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, eta horietan bakarrik emango diote laguntza Epaimahaiari.

2. Jarduera.

Epaimahaiko kide diren lagunek ezin izango dute parte hartu jardunbidean, eta hala jakinaraziko diote deialdia egin duen agintaritzari, baldin eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan jasotako kasuren bat gertatzen bada, edo deialdia argitaratu baino bost urte lehenagotik hautaprobetan parte har lezaketen izangaiak prestatzen ibili badira.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15etik eta 19ra bitarteko artikuluetan ezarritako arauei jarraituz jardungo du Epaimahaiak. Nolanahi ere, epaimahaiburuak aginduta, idazkariak bilerarako deia egingo du hautaprobak hasi baino lehenago, behar beste denbora hartuta. Epaimahaia legez eratzeko, ezinbestekoa da epaimahaiburua eta idazkaria bertaratzea edo, hala dagokionean, beren ordezkoak, eta kideen erdiak gutxienez.

Erabakiak, bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, Idazkariak izan ezik, hitza besterik ez baitu edukiko. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitatezko botoarekin ebatziko dira.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, epaimahaikideek ordezkatuko dute, hurrenkera honetan: hierarkian maila gorena duenak, antzinatasun handiena duenak eta adinez zaharrenak.

